

# Nafarkaria

• ostirala • 2002ko maiatzaren 17a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Lizarra** • Remontibal eskola publikoan kulturen bigarren astea ospatzen ari dira egunotan • **3**

**Patxi Iñigo** • «Euskara zuzena egin behar da, baina baita egokia ere» • **7**

## Olerkiak irudietan...

*Bilaketaren jarioak darrai  
gizakia ez izateko  
soilik heriotzaren pausa*

Irudi baten magalean olerki bat paratu dute. Irudi bakoitzak olerki bat du bere baitan, eta olerkiak, akaso, irudi bat. Argazkilaritza eta olerkigintza uztartuz 'Bideko oharrak' liburua argitaratu berri dute Antonio Arenal argazkilariak eta Francisco Javier Irazoki idazleak. Goatzeko liburua da, amets egitekoa, behin eta berriz ikustekoa eta irakurtzekoa. Liburua, ordea, ez da horretan gelditzen; izan ere, sormenerako euskarri gisa, hainbat orrialde zuri paratu dituzte, irakurleak bertan bere gogoetak isla ditzan.



Bera ●

# Antzerki besta



Mugaz Gain haur eta gazteen antzerki jardunaldiak abian dira, maiatzaren 31 bitartean

Berako ikastetxeetako haurrak Mugaz Gain jaialdirako euren antzezlanak prestatzen. ● GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

**O**RAIN ZORTZI URTE SORTU zenean eskoletan lantzen den antzerkia plazara ateratzea zuen helburu Mugaz Gain antzerki jaialdiak. Helburu hori hasieratik erdietsi zen, eta gaur egun baditu helburu gehiago ere, tartean, publikoa antzerkia ikustera heztearena ere. Horretarako publikoa eta aktoreak adin beretsukoak izaten dira, eta antzezlanen ondotik solasaldiak antolatzen dira aktore eta publikoen artean.

Atzo eman zitzaion hasiera jaialdiaren zortzigarren aldiari, Iruñeko San Fermin Ikastolaren eta Donostiako Zurriola Antzerki Eskolaren lanekin. Gaur, berriz, Berako Labiaga Ikastolako DBH 3ko ikasleen txanda izanen da, goizeko 9:30ean, eta 12:00etan Iturrama institutuko ikasleak izanen dira euren lana eskaintzen.

**Lamixine BAT antzerki taldeak antolatuz, atzo eman zitzaion hasiera zortzigarren Mugaz Gain antzerki jaialdiari. Maiatzaren 31 bitartean hamahiru antzerki taldek eskainiko dituzte euren lanak, eskola orduetan zein arratsaldeetan.**

Jaialdiak jarraipena izanen du maiatzaren 30 eta 31n, baina lehenago, eta ekintza osagarri gisa, heldu den ortziralean, maiatzaren 24ean, Irungo Doike Antzerki Taldeak *Inperfektua izan nahi dut* antzezlan eskainiko du arratsaldeko 20:00etan.

Maiatzaren 30 eta 31n Lehen Hezkuntzako ikasleen txanda izanen da. Ortzegunarekin Lesakako Tantirumairu ikastolako ikasleen txanda izanen da, eta ondotik parte hartuko dute Labiaga Ikastolakoek. Arratsal-

dez, aldiz, Labiaga Ikastolako taldeak errepikatuko du atek zabalik sailean, publiko guztientzako eskaintzan. Eurekin batera ariko dira Lau Kato eta Antzeko Parezido Berako gaztetxoek antzerki taldeak ere.

Jaialdiaren azken egunean Berako Ricardo Baroja ikastetxeko ikasleek, Irurtzungo Atakondoa ikastetxekoek eta Berako Ricardo Baroja eta Jesusen Bihotza Ikastetxeko ikasleek emanen diote akabera ikasleen bisitei.

**Antzerkia eta Eskola egitasmoa**

Mugaz Gain antzerki jaialdi honek ondorioak izan ditu Berako antzerkigintzan. Hortik sortu zen, neurri batean, Antzerkia eta Eskola egitasmoa. Eskola orduetan, antzerkia lantzen dute ikasleek irakasle profesionalen laguntzarekin. Gaur egun, Labiaga Ikastolan, Ricardo Baroja Ikastetxean, Jesusen Bihotza Institutuan eta Toki Ona institutuan taldeak daude, eta DBHko ikasleentzat bi talde daude eskola orduetatik kanpo ekintza gisa. Egitasmo honetan aipatu ikastetxe guztiez gain, Lamixine BAT herriko antzerki taldeak, BAI Teatro erakundeak eta Berako Kultur Batzordeak ere parte hartzen dute.

→ Jon Abril

Leitza

Tradizio handiko kultur astea

LEITZAKO KULTUR TALDEAK antolatuta, 24. Kultur Astea hasi zuten atzo, euskal selekzioaren gaineko mahai inguru batekin. Betsalde, gaur, 22:30ean, kontzertua eskainiko du Oreka TX taldeak, zinematokian. Bihar, 18:00etan, Kukubiltxo taldeak *Txirikiz* antzezlan taularatuko du, frontoian.

Igandean, hainbat ekitaldi egingen dituzte: ehoziri egileen topaketa, herri kirolak, Jauruta 60 txaranga eta herri bazkaria (14:30ean).

Astean zehar ere hainbat ekitaldi izanen dira, besteak beste: Asteartean, Xhanti Gonzalez mendizaleak *Munduari itzulita 17 urtetan* diapositiba emanaldia. Eta ostegunean, Leitza idazleen irakurketa izanen da, 20:00etan, Maxurrenean.

Irurtzun

Ingurumenari buruzko jardunaldiak

IRURTZUNEN JADA OHITURA denez, egunotan XII. Ingurumenaren Astea egiten ari dira, Kultur Kontseiluak eta Iratxo eta Larrazpi elkarteek antolatuta. Iragan asteo ostegunean hasi zen, eta heldu den astelehenean bukatuko da. Gaur, Joxe Ramon Agirrek *Mongoliako estepako tauladak* izeneko diapositiba emanaldia eskainiko du, 20:00etan, kultur etxean. Bestalde, astelehenean, 09:45ean, Tunocco Brass taldeak kontzertu didaktikoa eskainiko du, atakondoa ikastetxean.

muga enea

MIKEL REPARAZ



## Postala Amsterdamdik

**I**rakurle maitea, pena da coffee shop ilun haue- tan zerbezarik edan ezina. Hauteskunde eguna da gaur Herbehereetan (hala esan behar omen diogu orain Holandari), eta antzinako kazetarien gisa nabil, Rotterdamerako bidean, taberna zuloetan kronikak idazten. Berlinen Hitler izeneko batek irabazitako hauteskundeak jarraitu zituen korrespondentsal britaniarra etorri zait burura, bat-batean. Hura ere halaxe ibili zen segur aski, albiste emateko irrikan, zerbait gertatuko zela jakinik eta beldur apur batekin, Alemanian hain maitatua zen Adolf horretaz mesfidati.

Oraingoan, hala ere, hemen, Amsterdamen, ez dago ikaratzeko arrazoirik, Pim Fortuyn ez baita Hitler, eta, gainera, hilda dago. populismo hitzaren maskararekin estaltzen diren faxismo berrien gorakadak faxismo tradizionalen oinordeko eta aurkariak astindu ditu. Baina, finean, batak besteak ekarri du. Ondorio logikoa, aurreikusia. Izan ere, Europako demokrazia errotuek hitzetan, lexikoan baitute oinarria. Europako Batasunak lege kanpoko immigrazioa gelditu behar dela esatea politikoki zuzena eta txalogarria da; ordea, Herbehereetan arabiar gehiegi dagoela esatea, bekatu


larria. Funtsean, ez al da mezu bera? Amsterdamen, gaur gaurkoz, haur jaioberrien artean gehien entzuten den izena Muhammad da. Lehen Jan zen. Iruñean Xabier edo Mikel beharrean umeak Yussuf deituko direnean, ikusi beharko zer gertatzen den. Normala da atzerritarren etorrerak beldurra, ezinegona sortzea bertakoen artean. Gizakia, berez, ezjakin eta berekoia da. Arriskutsuena da agintariak, politikoki zuzenki ala ez, beldur horri, ezinegon horri tresnak eta bideak paratzea. Raxoi jaunak Atzerritarren Legearekin egin duen moduan edo Fortuynek —goian bego— edo Le Penek edo Haiderrek edota Berlinen aspaldi hauteskunde haiek irabazi zituen hark bezala. Goraintziak denoi.



Lizarra ●

# Kultur aniztasuna sustatuz

Remontibal eskola publikoa kulturen bigarren astea ospatzen ari da egunotan



**A** MAITZEAR DAGOEN IKASTURte honetan, atzerriko herrialdeetako 35 umek eman dute izena Lizarrako Remontibal eskola publikoan. Egun, 50 ume etorkin dago ikastetxean — Ekuador, Kolonbia, Peru, Nikaragua, Costa Rica, Argentina, Portugal, Errusia, Frantzia, Holanda, Britainia Handia, Iran, Sahara, Egipto, Argelia eta Indiakoak — eta bertze 50 ijito. Oro-tara, ikasleen %10. Gehienak Bere duan daude.

Oro har, berehala integratzen dira umeak bizimodu eta herrialde berrira, eta, mementoz, ez dute inolako arazorik izan bizikidetzarekin. «Oso pozik gauden kanpoko umeak jasotzeko dugun aukerarengatik. Oso aberasten gaitu, finean, gure anaia-arrebak baitira», dio Remontibal eskola publikoko zuzendari Antonio Marinek.

Ikasturte honetan, beste ekimen bat abiatu dute Lizarrako eskola guztien artean: ume berri bat ailegatzeko denean, udal-tertxera igortzen dute, eta bertan, astero egiten den bileraren ostean, eskola batera edo bestera bideratzen dute umea. «Horrela, atzeritar ume guztiak eskola bakarrean biltzea saihestu nahi izan dugu», azaldu du Marinek. «Uste dugu integratze modu onena, nolabait, umeak par-



Kulturen arteko trukaketa sustatzeko asmoz, Kulturen Astea egin dute, bigarrenenez, Lizarrako Remontibal eskola publikoan.

● JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

**Immigrazioaren mugimendua eskoletan ere islatzen da, eta umeen artean kultur aniztasuna sustatzeko xedearekin, Kulturen Astea ospatu dute, eta bihar jaialdia eginen dute ikastetxean.**

tekatzea dela, horrek errazagoa eginen baitu kultur ezberdinen arteko bateratzea».

### Kulturen Astea

Kultur ezberdinen arteko trukea sustatzeko asmoz, Kulturen Astea ospatu dute bigarren urtez jarraian, Remontibalen. *Ezberdintasunetatik ikasten* lelopean, lantegiak, ikastaroak, ipuin kontalariak eta musika emanaldiak

izan dira, aste osoan zehar, ikastetxeko geletan. Xedea eskolan biltzen diren kulturen ohiturak helaraztea izan da. «Kultura guztien ezagutza sustatu nahi dugu; izan ere, ezagutzaren bidez, errespetua dator; eta, gainera, oso aberasgarria da», azaldu du gurasoen elkarteko kide batek.

Asteazkenean zehar landutakoa eta ikasitakoa, guraso eta herrita-

### Integratze arazorik ez

LILIANA CASTILLOK HAMAR urte ditu, eta duela urtebete ailegatu zen Lizarrara, Ekuadortik. Oso gustura dago neskatoka eskolan, eta «hemen diferente hitz egiten bada ere, ez da batez ere zaila izan aldaketei ohitzea». Jose Juan Lopez, berriz, Kolonbiatik etorri zen, eta hemengo eskolako etxeko lanak hangoak baino errazagoak direla aitortzen du. «Han entziklopedietara jo behar zenuen etxeko lanak egiteko; hemen, dena eskolako liburuetan dago», azaldu du irribarrez.

Ekuadorko Carla Paulak bere sorterriko jai alaitzuen falta sumatzen du batez ere. «Janaria ere ezberdina da, baina oso gustukoa dut», dio.

Alena Maya Errusiatik etorri zen, duela bost urte. «Lizarra oso hiri polita eta lasaia da. Oso gustura nago hemen», erran du. Anabel Corbo, berriz, Argentinatik etorri zen, eta bere herrialdearen eta gurearen artean ez dagoela ezberdintasun nabarmenik dio. «Hitz egiteko modua aldatzen da batez ere. Nik Argentinako doinua soilik gurasoekin erabiltzen dut; eskolan, hemengo umeen moduan aritzen naiz».

rrekin partekatu ahal izanen dute umeak, bihar eginen den jaialdian. 11:00etatik aitzina, hainbat ekitaldi eginen dira, eskola publikoan: musika, antzerkia, dantza, ipuinak, lantegiak eta jokoak. Halaber, aste osoan zehar, irekita egon den erakusketa ere ikusten ahal da bihar. Bertan, hainbat herrialdeetako kulturaren adibideak bildu dituzte: musika tresnak, jantziak, jokoak, panpinak eta abar.

Azkenik, bihar ere salgai egonen dira Managuako ikastetxe bat laguntzeko zozketa txartelak. Iaz, 6.000 kilo material bildu zuten Managuara bidaltzeko.

→ Kristina Berasain



urdairen  
mintzoa

Xabier Larraburu

### Talk show

Loratetik banku batean nago (irakurtzen, eguzkia hartzen), eta Bexikulasek (nire maiordomoa, nire txoferra, nire lorezaina) goiko leiho batetik deitzen dit, igotzeko, baduela sorpresa bat niretzat, hemendik bost minutura hasiko dela saioa, iragarkietan ari direla orain. Beraz, liburua itxi, eta Larraburu-Eneko eskaileretan gora egiten dut, eta lehen pisuan, nora jo zailentzen gelditzen naiz, Bexikulasek ahotsa entzuten dudana arte, «DVD Estudioan ez, jefe, Arkeologoen Salan nago, telebista panoramikoan». (Hemen esan behar dut sala horretan bildu ditudala urteetan erositako artelan zaharren erreproduzioak, jatorriko neurritan eta materialetan eginak denak, hala nola: maien estela erraldoi bat, Akropoliako zaldien buruak, Txinan lurperatutako armadaren bost gudari (beraien zaldiekin), eta abar, eta abar. Marmol, Harri eta Urrearen Sala izan zitekeen, baina Arkeologoen Sala izena Bexikulasek berak jarri zion, txantxetan; nik, ordea, Tabikearen Sala deitzen dut, arte lan bakoitzaren sarrera ahalbidetzeko tabike bat bota eta berreraiki behar izan baitugu beti).

Salan sartu eta Bexikulasek jada telebistaren aurrean eserita ikusten dut, «eseri jefe, saioa hasi da eta; hori da lehendabiziko gonbidatua», esaten dit. Esertzen naiz. Gonbidatua lesbiana bat da. Bere harreman sexualez hitz egitera joana da saiora. Esaten du gizonetakoekin bakarrik jotzen duela larrua, bestela ez dela berotzen. «Baina lesbiana zara?», galdetzen diote. «Bai», erantzuten du barrez. Bere barrearen azpian «Lesbiana da baina gizonetakoekin bakarrik oheratzen da», leloa jarri dute. Dagoeneko, larrutia nago. Bexikulasek «ni hurrengoan izan nintzen» esaten duenean zorabiatzen naiz. Gero, «gure hurrengo gonbidatua morroia da, esklabo bat, ez du soldatarik jasotzen, ohea eta janariaren truke ari da zerbitzuan, txalo bat Bexikulasek», esaten dute, eta nire begien aurrean, Bexikulasek ikusten dut platoon sartzen, eta «zu esklabo bat zara ezta?», galdetzen diote, eta berak baietz, «ja ja», eta «esklabo boluntarioa eta anarkista aldi berean» leloa jarri diote, eta «Larraburu-Enea» entzun orduko, konortea galdetzen dut ●



«**B**ILAKETAREN JARIOAK DARRAI / GIZAKIA ez izateko / soilik heriotzaren pausa». Francisco Javier Irazokiren poematxo, hau bildu zuen Antonio Arenalek duela hiru urte argitaratu zuen postal bildumaren atzealdean, eta poematxo horrekin abiatzen da orain elkarrekin egin duten liburua: *Bideko oharra*. Bertan, 20 argazki eta 20 olerki paratu dituzte, bata bertzearen ondoan, bata bertzearen magalean; izan ere, irudiek eta hitzek bat egiten dute, behin eta berriz, liburuan zehar. Eta nahita egin ez bada ere, elkarrekin egoteko apropos egindakoak direla dirudi. Bata bertzearekin osatzen da, nolabait, eta aldrebes. Irudi bakoitzak olerki bat du bere baitan (ondoan duena, agian), eta poema bakoitzak irudi bat (albokoa, akaso).

*Bideko oharra* bi artisten lanaren gauzapeña da, beren artearen euskarri, eta ume desiratu baten gisara zaindu dute oraintsu karrikara atera den bitartean. «Gure ametsa betetzeko aukera eman digu liburua, gure barne ideiak plazaratzeko aukera. Liburua gure nahiaren arabera egin dugu, inongo baldintza eta mugarik gabe». Antonio Arenal argazkilaria hitzak dira. «Gure gurea dela erran genezake».

Liburua dagoeneko salgai dago liburu dendetan 15 euroren truke. Hasiera batean Donejakue bidea egiten duten erromesei zuzentzea zen asmoa, baina gerora, horre-


**Argazkilaritza eta olerkigintza uztartuz 'Bideko oharra' liburua argitaratu dute Antonio Arenalek eta Francisco Javier Irazokik. Batak argazkien bidez islatzen ditu bidezidorretako txoko ederrak. Bertzeak gizakiaren barruko bideetan aurkitutakoa hitzen bidez adierazten du. Liburuxkan bi bideek bat egin dute.**

**Francisco Javier Irazoki**

'Idazlea'  
«Haiku anitz idatzi izan ditut, eta batzuk argitaragabeak ziren. Orain estetika horretatik urrun banago ere, liburu honetarako egokiak ziren»

tara mugatu beharrean, oro har edozein motatako bidea egiten ari denari eskaini nahi izan diote liburuxka.

**Irakurlearekin partekatzeko liburua**  
Urrobi ibaiaren irudia ikus daiteke liburuaren azalean eta barrualdeko aurreneko orrialdean. Ondoan, arestian aipatu olerkia, eta jarraian zuri dauden zortzi orrialde. Gero, bertze argazki bat eta bertze olerki bat, eta jarraian bertze zortzi orrialde zuri. Horrela osatzen da liburua, argazkiez, olerkiez eta zuri dauden orrialdeez. «Nolabait, amaitu gabe dagoen liburua da gurea, irakurleak osatu behar duen liburua, hain zuzen ere», azaldu du argazkilaria.  
Ildo horretan, argazki eta olerki bilduma soil bat izateaz gain, liburua sormenerako



«Edertasun berrak, agian bere bidean make zuhaitz berrak»



«Adin zaharra ufaka. Hosto sutu bakar bat agintzen du udutzenak»



«Muga bakan bat aski du gizonak zeruko morroi bihurtzeko»

ANTONIO ARENAL

euskarri izatea nahi izan dute egileek. «Sormenari lekua utzi nahi izan diogu, eta sormen hori irakurlearekin partekatu. Liburuan dauden argazkiek eta olerkiek zerbait iradokitzen duten ustea dugu, aierupen irudiak eta poemak dira, eta sentitutakoa edo bizitakoa liburuan plazaratzeko gonbita egin nahi izan diegu», adierazi dute egileek. Alde horretatik, sormen hori bai hitzen bidez bai marrazkien bidez islatu ahal dutela gaineratu dute. «Paper zuria mardula da, birziklatua, eta akuarela eta goasch margoak jasotzeko egokiak».

Paper zurian idatzitakoak edo marraztutakoak liburuaren norberarena dela sentitzea ekarriko du, egileen idurikoz. «Norberak bereganatu eta pertsonalizatu ahal duen libu-

rua da, eta, neurri horretan, apalategian ahantziko ez dugun liburua izango da», azaldu dute.

**Nafarroako paraje txiki politak**  
Liburuan Nafarroako hainbat txoko ageri dira, iparraldetik hasi eta hegoalderantz abiatuta. Basaburua, Irati, Baztan, Erronkari, Urbasa, Andia, Iruñerria, Estellerria, Orba ibarra edo Araitz ibarra dira liburuxkan aurkitzen ahal ditugun lekuak. Argazkietan paraje ederrak bildu dira, leku bukili-koak, toki idilikoak; Olabideako hariztia, erraterako; edo Basaburuko eszilak loretan, edo Iratiko pagadi izoztua, edo Olazargo ubidea udazkenean...

«Natura entzuten jakin behar da, eta pa-



KRISTINA BERASAIN

**Antonio Arenal**

'Argazkilaria'  
«Paraje bakoitzaren poesia bilatzen dut, eta behin eta berriz bueltatzen naiz paraje horretara, poesia hori islatuko duen argazkia ateratu arte»

raje bakoitza ikusten jakin behar da», dio Antonio Arenal argazkilaria. «Leku bakoitzaren poesia bilatzen dut, eta behin eta berriz itzultzen naiz leku horretara, poesia hori agertuko duen argazkia lortu arte. Poesia hori agerian dagoen mementoaren zain egoten naiz, eta baldintza guztiak egotea ez da erraza izaten. Sarritan bueltatzen naiz leku berera. Erraterako, lau urte daramatzat leku batera joaten, amestutako argazkia noiz aterako zain», zehaztu du.

Ildo horretan, liburuan ageri diren irudiek ez dutela Nafarroako errealitatea islatzen adierazi du Arenalek. «Toki horiek aurkitzeko, aurretik bilatu behar dira; ez daude hor, agerian; nolabait, ezkutuan daude, eta paraje hauetako askok desagertzeaz daude edo desagertzeko arriskuan», gaineratu du. Basoek, zuhaitzek, ibaiek, zelaiek edo loreek duten edertasuna agerian jarri nahi izan du Arenalek: «Ezkutuko edertasun hori helarazi nahi izan dut, paraje horiek babesteko xedearekin». Liburua naturarekiko errespetua sustatu eta gizakia sensibilizatzeko asmorekin ere egin dute egileek.

rrek betetzen nau. Dagoeneko hiru poesia liburu idatzi ditut, eta ez naiz ezer egiten ari argitaratzeko. Interesa badute, berez argitaratuko dira», azpimarratu du.

Egun egiten duen lan idatzia prosan dauden poemak dira. «Libre sentitzen naiz, eta lan egitearen ondorioz idazle gisa heldutasuna aurkitu dudala erran dezaket. Nik neretako idazten dut, neure buruari galderak egiten dizkiodalako eta idazteak arintasuna bilatzen laguntzen didalako. Idaztea sentimenduak islatzeko modua da, eta neurri horretan pisua galtzeko modua, barneko karga arintzeko modua», zehaztu du idazleak.

**Lagunarteko amets bat beterik**  
Antonio Arenal argazkilariaz eta Francisco Javier Irazoki idazleaz gain, bertze pertsona batek ere hartu du parte liburuaren edizioan. Jabier Arbillak, hain zuzen ere. Iruindarra liburuaren diseinuaz arduratu da, eta oso liburuxka zaindua egin du, kutuna. «Maitasunez eta lasaitasunez egindako lana da, eta hori nabari da emaitzan», gaineratu dute egileek.

Hirurak lagunak dira, eta liburuxka lagunarteko amets baten gauzapeña dela erran daiteke. Hirurek elkar miresten dute, bate-tik bakoitzak egiten duen lanarengandik edo lan egiteko duen moduarengandik, baina baita den pertsonarengandik ere. Arenalek dio Irazoki sentiberatasuna agerian sumatzen zaion gizona dela eta bere poemak hunkigarriak direla. Arbillak, berriz, artista dela, xehetasunak aintzat hartzen dituen pertsona. Irazokiren ustetan, Antonio mainaz lan egiten duen etika handiko argazkilaria da. «Bere osotasun moralak hunkitu egiten nau», dio. Arbillak, aldez, eskulangile bat dela bere lanean, «eta artisau geldoa gainera, lasaia».

Loreak botatzen dizkiote hiru lagunek elkarri, benetako loreak, eta liburu berte-lagun bati eskaini nahi izan diote: duela bi urte zendu zen Ramon Elosegi biologoari, hain zuzen ere. Antonio Arenalek NAFARKARIAri erran dionez, liburua «gustuko gauzen topagunea izan da». Arteen topagunea eta lagunaren topagunea. Bidaztien topagunea, alegia. Bidaide, gogaide. Hemendik aitzina irakurlearekin bat egiteko topagunea izanen da.

Kristina Berasain

# ... eta irudiak olerkietan



Irakurleak osatu behar du argazkiak eta olerkiak biltzen dituen 'Bideko oharra' liburua



**Izenburua:** 'Bideko oharra'.  
**Egileak:** Antonio Arenal, Francisco Javier Irazoki eta Javier Arbillak.  
**Salneurria:** 15 euro.  
**Ale kopurua:** 1.500.  
**Jakingarriak:** Orotara 20 argazki eta 20 olerki biltzen ditu liburuxka. Tartean orrialde zuria daude, irakurleak bere sormena islatu ahal izateko. Edizio kutuna da oso zaindua.



# Iraupen sortzailearen bakardadea

**Artista.** Egiten dudunaldi oro emazteak, temati, nire hel-dugabetasunaren erakusle ezin hobea dela aurpegiatzen badit ere, *TMO* komiki aldizkariko zenbaki guztiak erosten ditut. Batez ere Rabozalea naiz, erran nahi baita **Alvarez Rabo** zalea —**Mauro Entrialgo, Zaldi Eroa, Jokin** edo eta Euskaldun Despistatuak barka diezadatelatua, eta irakurleek, ukitu lizun-zoldazusamarreko zeharkako txiste txarra—. Hain justu hori dela kausa, guztiz aztoratuta nabil sexu aholku raberoen emaileak iragarri duelako komikien hedapen urria dela-eta sormen krisi sakonean eroria dela, eta gutxienez mila jarraitzailearen eskutitzak jaso ezan marrazteari utziko diola. Doakiola lerro hauetatik, zinez eta bihotzez, sostengu adierazpenik be-roena.

**Ispilua.** Asko dira Raborengandik gertu sentiarazten nautenak: sortzaileak izanagatik ere, biok gure familiak aurrera atera ahal izateko prostituitu egiten gara saltzaile moduan, bera Bilboko El Corte Inglesen eta ni Iruñeko Unzun; biok aho-sexuarekiko zaletasun obsesibo pairatzen dugu; biok iragan ideologiko gorria dugu, eta bion egungo ideologia ozta-ozta heltzen da garbigailuan kamiseta gorri batekin sarturiko gal-tzontzilo zuri batek hartzen duen arrosa

kolore zikin indargera. Horregatik guztiagatik, oroitzapenean iltzatuta daukat behin Rabori elkarrizketa batean irakurritako hausnarketa: «(...) betidanik izan naiz marxista-leninista, eta Berlingo harresia erori zenetik, gainera, estalinista bilakatu naiz». Hausnarketa go-goan iltzatuta daukadala diot egunotan burura etorri zaidalako, eta, beraz, argi dagoelako hor nonbait gordeta neukala.

**Pentsalaria.** Raboren hausnarketa gogora etorri zait neure burua zenbait aburutan harrapatu dudalarik. Aurre-

koan, Monte Carlon mus partidan ari ginela, Unzuko kirol saileko saltzaile erregionalista muturreko bi —**Santiago Cerveraren** klon dirudite biok— aurkarizat genituela, biotako baten haurra sartu zen tabernan, litxarriak erosteko euro baten eskean, eta aitak, erantzun moduan, izugarrizko zaplastako bat eman zion, **Mikel Goñik**—zigortu orde saria eman beharko liokete drogazale izanda horren ongi jokatzegatik, bere garaian **Diego Armando Maradonarekin**, egun **Romario Da Sou-sarekin** egin beharko luketen moduan— pilota errebotera igortzeko edo

eta diskotekako zinpeko guardia zorura bidaltzeko ematen dituen horietakoa. Orduantxe bururatu zitzaidan auto bat gidatzeko azterketa egin behar den bezala, espermatozoide eta obulu osasuntsuak edukitzeaz haratago, guraso izateko ere zerbait gehiago eskatu beharko litzatekeela: azterketa, prestakuntza. Eta pentsamendu ildo horretatik, eta alboetan nituen Cerverazale biei begira, otu zitzaidan boza emateko ere azterketa- ren bat egin beharko litzatekeela, gomina gogorturiko burmuindun bion botoek ezin zutela ukan nire bozaren balio bera. Bada, hori; gora Rabo.



Mikel Goñi pilotaria.



Alvarez Rabo, Monte Carloko ohiko bisitaria.



## panpilonia zirkus

### Mol eta valichó

Elortz erreka bazterreko makaldietan agertzen ziren. Hiruzpalau gurdi ziren, sua beti erdian piztuta, eta inguruan, nahas-mahasean, ezin konta ahala traste eta tramankulu jendearen artean barreiatu- rik. Haurrak, oinutsik, jostetan. Zakur herren argala usnaka zebilen mando eta zaldi bizkar abailduen artetik. Bitartean, Larraskuntzeako auzolagunak erne eta barrandan, zer gerta ere. Gaur egun, ijito ibiltariak ere hiriraino iristen dira, baina furgoneta koska herdoildunetan, eta kanpamendua Orkoioengo mugan paratzen dute, errepide bazterrean.

Hiri barnean, ordea, ijitoak beti bizi izan dira. Ospetsuenak Merced karrika-koak izan dira. Horregatik, inguru hartako paioek ijitoen hizkuntzako hitz asko zekizkiten. Hitzik ezagunena, zalantzarik

gabe, *mol* da, ardoa, alegia. Turrillas jaun musikariari bururatu zitzaion hitz hura arras egokia zela San Frantzisko ikastetxe-ko sotoetan egoitza zuen Club Kirol elkartearen kantua egiteko. Elkarte horretakoek akats bat zuten, gainera: «... *Club Kirol, tienen un defecto, no les gusta el mol...*».

*Valichó* ere ezaguna da, zerrikia, eta, *manró* (ogia). Baina, Merced aldeko ei entzunik, *cangri* eliza da, *pestañi* polizia eta *Mabel Jainkoa*. San Agustin elizara joaten izjito aitajaun hark, hots, Jordan Etxeberriak, honela hasten zuen Aita Gurea: «*Bató nonrió, sos socabas on ler Otalpes...*». Lumbreras gaita eta piano jole xebreak, berriz, egunero doinu berbera txistukatzen zuen lanerako bidean (San Gregorioko Euskalduna tabernan musi-



Iruñeko ijitoak jada ez dira Jito Alai frontoian aritzen.

kari). Doinua entzuten zuten guztiek kantua euren baitan abesten zuten: «*Los sajarais no currelan...*» (sajarais = apezak).

Gaur egun, ez da Merced aldean ijitorik eta ez dira pilotan aritzera joaten San Bartolome bastioiaren harresien arteko pilotaleku elbarritura, Jito-Alai pilotalekura, alegia. Hiriko ijito anitz Jarautan bizi dira, balkoietan, kalean berean, Descalzosko

iturriaren parean, Jarauta eta Eslaba arteko gurutzean, zalapartari. San Lorentzotik edo Karrika Nagusitik heldu den udaltzain bakaren gorra agertu orduko, denak amen batean desagertu eta isiltasuna nagusitzen da. Baina amen batean ere edozein gauza lortuko dizute. Bertsoza- leen Elkarte Descal- zosen dago, eta behin, zerua goibel, euria egin hurren, atari zabalean egite-koa zen bertso saioa kolokan zegoen. Bada, buru egiten zuen ijitoari galdetu zioten ea toldorik lortzerik zuen. Ordu erdira hantxe zegoen toldoa. Ordaindu eta toldoaren jatorriaz tutik galdetu gabe, zabaltzerakoan, letra hauek agertu ziren: RENFE.



# Patxi Iñigo

EUSKARA IRAKASLEA

## «Euskara zuzena egin behar da, baina baita egokia ere»

**E**USKALTZAINDIAREN arauak, egiten diren trakeskeriak, Nafarroako esapideak eta hiztegi batua —besteak beste— irakasten die Patxi Iñigok ogibidean euskara beharrezkoa duten hogeit bat lagun.

### ■ Zein behar edo zein gabezia ikusi zenuen horrelako ikastaro bat antolatze-ko?

Lehenbizi, ikusi genuen euskara tituludun izateak ez duela erran nahi tituludunak euskaraz ongi egiten duenik; eta are gutiagoko tituludunak dakiena gaurkotzen segitu behar ez duenik. Euskara normalizazio prozesu batean ari da, eta gaurkotzea etengabekoa da; eta mundu guztiak ez du ez astirik ez umorerik beti jakinaren gainean egoteko gaurkotze hori nola dagoen. Horrelako ikastaroretan, jendeak gutienez egiten du ahalegin bat hori bereganatzeko.

Bertze aldetik, nik jada hargarren urtea dut Hizkuntza Eskolan ikastaro berezi batzuk ematen, ikastoletan edo eskola publikoetan D eredia ikasi dutenentzako. Titulua ateratzen laguntzeko ikastaroak dira. Ikusi dut beren euskarari halako egokitasun bat eman behar zaiola, hemen Iruñean euskaldun hiztunen erreferentzia falta baitute; bizitzako alor guzietan euskaraz mintzatzen diren hiztunen falta, alegia. Horrela, tabernan, edo lagunartean, edo familian, euskara formala bertzerik ez dute egiten. Ez dago erregistro aldaketarik, ez baituzte ereduak entzuten. Lokuazioak, esapideak, lagunarteko argotak... ez dituzte bereganatzen. Horrek bultzatu ninduen Eskolak egiten dituen gaurkotze eta hobetze ikastaroen artean euskarazkoa ere antolatzea.

### ■ Euskara irakasterakoan, kantitate lortzea-gatik, uste duzu kalitatea alde batera utzi dela?

Bai. Gaur modan dago kalitatearen kontua, eta arrazoiarekin. Ikastaroari ez nion *Euskara*

*zuzena* izena bakarrik jarri; *Euskara zuzena eta egokia* baizik. Euskaraz zuzen egitea baino areagoko kontua da kalitatea; egoki ere egin behar da. Aukera baldin badugu euskaraz modu batera eta bertzeraz egiteko, modu horiek hartu behar dira eremu bakoitzean erabiltzeko. Horretan datza kalitatea, erabileremu bakoitzerako hizkuntza eredu egokia erabiltzeko.

### ■ Kalitateari ekiteko ordua da, beraz.

Bai, bai. Eta kezka handia dago horretan. Euskara zuzena egin behar da, jakina, baina baita kalitatezkoa eta egokia ere.

«Aukera baldin badugu euskaraz modu batera eta bertzeraz egiteko, modu horiek hartu behar dira eremu bakoitzean erabiltzeko. Horretan datza kalitatea»

### ■ Eta nola lortzen da egokitasun hori?

Nola? Beno... Ereduak harapatu behar dituzu. Horretarako, autore onak irakurtzea gauza baliagarria izaten da. Gero herriak ere egiten du kalitatea bere gisan. Eta hori aunitz entzun behar da. Ereduak harapatzeko, irakurri eta entzun egin behar izaten da.

### ■ Zure eskoletan herrian egiten duzuen euskara duzu erreferentzia beti. Hori da eredu?

Bai, bai, herrikoa. Baina idatzia ere bai.

### ■ Euskara batua-euskal-

### kiak gatazka hori gaindituta dago?, edo berriz pizten ari da?

Nik uste dut batua eta euskalkiak osagarri direla. Ez daude bata bestearen kontra. Gero, euskara batuari buruz nik pentsatzen dut halako oker ulertze bat badagoela. Euskara batua oraindik gauza oso ttikia da. Aditza egin dago, deklinabidea, orain hiztegi zati bat, baina hortik kanpora deus guti erran da. Eta hori egiten joan beharko da. Eta hori ikaragarriko ekarpena egin dezakete euskalkiek. Hau da, ikusi behar da nola egiten den euskalki bakoitzean, eta ereduak direnak bultzatu, eta denekin batera euskara batua egin. Horretan lan handia egin du ikerketak; erabili behar dena biltzea eta ikertzea oso garrantzitsua baita.

### ■ Horren harira, zer iruditzen zaizu Iruñeko Uda-

## soslaia

Patxi Iñigok gidatzen duen *Euskara zuzena eta egokia* ikastaroa lehen aldiz eskaini du aurten Iruñeko Hizkuntza Eskolak. Otsailean hasi ziren, eta maiatzarekin bukatuko dute; orotara, 65 ordu. Heldu den urtean ikastaro berriz egingen dute, urritik otsailera. Izena emateko lehen fasea maiatzaren 23an akituko da. Ikastaroa irakasleei, lanposturako euskara ezinbesteko dutenei eta interesa duen edonori zuzenduta dago.

Iturenen jaio zen Patxi Iñigo, 1942an. Apaiza da, Euskal Filologia ikasi zuen eta «modu batean edo bertzean» 24 urte zituenetik da irakasle. Duela hamalau urte, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasle postua lortu zuen. Beran ere haurren irakasle da.

Patxi Iñigok hurbiletik segitzen ditu Euskaltzaindiak egiten dituenak, Andres anaia euskaltzaina duelako batetik, eta Jagon Saileko batzorde batean dagoelako bertetik. «Batzordean azken boladan asko mintzatzen da estrategia berriak nola landu euskarari kalitatea emateko», erran du.

Beran haur euskaldun zaharren irakasle da, eta Iruñean D ereduarena. «Diferentzia ikaragarria dago bi taldeen artean», dio. «Hemengoek zailtasun handiak dituzte zenbait esapide ulertzeko. Hangoek, berriz, nahiz eta ez erabili, esapideak ulertzeko ez dute problemarik».

### lak haur literatur lehia- ketan batuaren eta euskalkiaren artean egin duen bereizketa?

Orain arte eman diren iritziak bezala, ez zait ongi iruditzen. Azken batean, iruditzen zait aitzakia bat dela gauzak nahasteko eta gutiagoko egiteko. Gaur egun, gainera, hemengoa zer da? Zein aukeratu? Herri batean baldin bazaude, han garbi daukazu: bertakoa hartu. Baina hemen? Badira zantzu batzuk, baina ez dago garbi oraindik zer zen eta noraino zen hemengoa.

→ Asier Azpilikueta





## Nafar Kronika

Gontzal Agote

### Eguzkiaren bila

Ohi baino ilun eta tristeagoa izaten ari den udaberri honetan eguzki printza batzuk antzeman ditugu zeru lanbrotsuan. Ez dira asko izan eta akaso beren indarrak ez gaitu luzeegi epelduko, baina bada zer-bait, zer arraio!

Duela aste batzuk, Europako Batasune-koek egin zuten goi-bilkuraren harira, karrikan egindako mobilizazioek aspaldi ez bezalako bizitasuna ekarri zuten gurera. Iruñeko Foroan bildutako talde eta gizabak-koek egindako informazio lana eta pres- tatutako egitaraua: hitzaldi, mobilizazio, ekintza, jai eta enparauetan indar berria sumatu zen, irudimenaren indarra eta zaharkitutako moldeekin apurtzeko nahia.

Hori guztia ederki islatu zen asteburuan egin zen manifestazio erraldoian. Aspaldi-ko partez, Nafarroako ezker guztiak (baita zentroko batzuk ere) batera ikusi genituen, baina oraingo honetan, hona beste berri- kintza bat, alderdiek ez zuten ez zegokien protagonismorik bereganatu. Mobilizazio alai- a izan zen, gizarte zibila deritzanak gidatua, eta parte-hartzaileen gaztetasuna izan zen pozik egoteko beste arrazoi- etako bat.

Globalizazio kapitalista eta neoliberalis- moaren kontrako mugimenduak duen indar- ra agerian gelditu zen berriro ere. Askotan esan izan da gure nazio gatazkak ez diola tarte handirik uzten mugimendu horri eta atzeratuta gelditzen ari garela. Dena den, kosta ahala kosta beste mundu baten alde- ko filosofia globala gero eta garrantzi han- diago hartzen ari da gurean.

Horrekin batera, beste printza bat ailega- tu zaigu Palestinako betiereko gau ilunetik. Mundu berri baten alde egitea manifestara joatea baino gehiago dela erakutsiz, herrialde askotako internazionalista talde batek Arafat presidentearen bizia salbatu du. Protagonismorik hartu gabe Paul Nicholson nekazariak eman digu horren berri, ez zen soilik Palestinaren eskubideen garaipena, baizik eta mundu berria nahi duten horien guztien ideien gauzapen prak- tikoak.

Idea berriak hor daude, baita adibide praktikoak ere. Printza horiek udaberri hitza argitzeko balio dezatela.

## gure aukerak

### MUSIKA

- ▶ **Elizondo:** Bol taldea gaur, 22:00etan, Kasino ostatuan.
- ▶ **Zangoza:** Samsara taldea gaur, 23:00etan, Diagonal tabernan. Eta 00:00etan, Na Tua Man taldea, Dos Caballos tabernan.
- ▶ **Tafalla:** Escarabajos taldea gaur, 23:30ean, Gabalzeka tabernan.
- ▶ **Bera:** Dilettanti sonata barro- koa bihar, 20:00etan, Altzate elizan.
- ▶ **Burlata:** Kuto, Zirikatu eta Meri- diam taldeak bihar, 21:00etan, Euskal Herria peñan.
- ▶ **Uharte:** Peta Zeta taldea bihar, 00:01ean, Limite aretoan.
- ▶ **Burlata:** Sonikete taldea astear- tean, 20:30ean, Black Rose ta- bernan.
- ▶ **Iruñea:** King Putreak taldea oste- gunean, 21:30ean.

### BERTSOLARIAK

- ▶ **Casada:** Bihar, 22:00etan, bertso afaria eginen dute Trinkete el- kartean, Oihane Enbeita eta Amets Arzallusekin.

### DANTZARIAK

- ▶ **Galar:** Igandean Nafarroako Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute Galar Zendea (Cordovi- lla, Espartza, Arlegi, Subitza, Olatz, Getze, Ezkirotz eta Ga- lar). Dantzariak 10:30ean iritsi- ko dira herrietara, eta ordu ba- tez ariko dira. 13:00etan denak Getzen elkartuko dira, 14:30ean herri bazkaria eginen dute, eta ondoren dantzaldia izanen da.
- ▶ **Garralda:** Harizti taldeko dantza- riak plazan izanen dira igande- an, 12:30ean.

### ANTZERKIA

- ▶ **Antsoain:** TEN-Pinpilinpauxa taldeak *Oz aztia* antzeztuko du bihar, 18:00etan, kirolde- gian.
- ▶ **Iruñea:** Hiru Puntu taldeak

*Lurra* lana taularatuko du aste- lehenean, 20:30ean, Antzerki Eskolan.

- ▶ **Iruñea:** Bele-Bizi taldeak *Kabaret* antzezlan eskainiko du asteaz- kenean, 20:30ean, Antzerki Es- kolan.

### HITZALDIK

- ▶ **Iruñea:** Kike Diez de Ultzurrun kazetaria Iruñeko bitxikeriez solastatuko da ostegunean, 10:00etan eta 18:00etan, Artu- ro Campion euskaltegian.
- ▶ **Barañain:** Su Ta Gar taldeko kideek kankak nola sortzen dituzten azalduko dute ostegu- nean, 19:00etan, Haize elkarte- an.

### ERAKUSKETAK

- ▶ **Mutiloagoiti:** Hector Urrea eta Fermin Diez de Ultzurrun artis- ten *Under Construction D.O.S.* erakusketa hilaren 22a arte izan- en da kultur etxean.
- ▶ **Barañain:** *Txotxongilo burutsuak* izeneko erakusketa hilaren 24a arte bisitatzen ahal da kultur etxean, astelehenetik larunba- tera 18:30etik 20:30era eta jaie- gunetan 12:00etatik 14:00eta- ra.

### BESTAK

- ▶ **Mutiloagoiti:** Herriko bestak atzo hasi ziren eta igandean bukatu- ko dira.
- ▶ **Atarrabia:** Nafarroako Gazte El- karteen Astea bukatzeko, bihar besta eginen dute Atarrabian: kalejira, hamaiketako eta tai- lerrren hasiera (11:00), Mikelats dantza taldearen emanaldia (12:30), grafitiak (13:00), futbol partida (13:30) eta herri bazka- ria (14:00). Horretaz gainera, txaranga, gaitariak, malabare- ak, *skater*-ak, elkarten erakus- mahaiak..
- ▶ **Antsoain:** Euskal jaia eginen dute igandean. Goizean goiz gaita eta txistuaren soinuk entzu-

nen dira herrian, eta parkean eskulangileen feria eta ardi moztailen erakustaldia izanen da. 11:30ean abiatuta, dantza- riak, joaldunak, erraldoiak, gai- tari eta txistulariak ibiliko dira herrian barna.

### BESTELAKOAK

- ▶ **Iruñea:** Bihar, 18:45ean, herri meza euskaraz emanen dute je- suiten elizan (Bergamin, 32). San fermin ikastolako abesba- tzak parte hartuko du.

## Asteko erakusketa



### Belen Arevalo

**Zer:** Grabatuak, margolanak eta eskulturak.

**Non:** Iruñeko Ormolu galerian (Paulino Caballero, 42).

**Noiz arte:** Maiatzaren 31 arte.